



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruña, 2003ko apirilaren 23a

44. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Industrializazio Plana egiteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (2. or.).
- Galdera, Toki Administrazioako Departamentuko Hiru Urteko Planaren barnean emandako presako dirulaguntzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, etorkinek Nafarroako Enplegu Zerbitzuko prestakuntza-ikastaroetan parte hartu ahal izateari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, Orkoiengo TRW enpresari emandako dirulaguntzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, Culturax Millenium Fundazioa udako ikastaroak antolatzeko hautatu izanari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, aurten eskainiko diren udako ikastaroetarako buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, superabitaren gaur egungo zenbatekoari eta zenbait proiektutan hura kontrapartida gisa erabiltzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Galdera, Nafarroak Madrilen duen ordezkariari Nafarroako Gobernuaren kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen administrazioaren goi karguen bateraezintasunei buruzko Foru Legea aplikatzen ote zaion itauntzen duena. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak, eta Parlamentuko informazioa:

- Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko administrazioari izateko lanpostu huts bat, Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren bulegoan ariko dena, lekualdatze lehiaketaren bitartez betetzekoa. Onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda (16. or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, Industrializazio Plana egiteari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak Industrializazio Plana egiteari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko maiatzaren 23ko 38. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 15ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeko José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak galdera egin du Industrializazio Plana egiteari buruz. Hona Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilari Nuria Iturriagagotia Ripoll andrearen erantzuna.

Lehenbiziko hiru galderen erantzuna:

Biltzarreko Osoko Bilkuran 2001eko irailaren 20an azaldu genuen bezala, Nafarroan ez dira ez baldintza objektiboak ez gutxienez beharkizunak ematen berrindustrializazio plan bat egitea justifikatzeko. Ugari dira hori segurtatzen duten datu objektiboak; horietako batzuk aurrerago azalduko ditugu. Horrenbestez, berrindustrializazioa alde batera utzita, desegokia izateagatik, egokiagoa da industria, lehiakortasuna, berrikuntza, lurralde garapen orekatua eta abar sustatzea.

Horri dagokionez, Nafarroako Gobernua aplikatzen aritu den industria politikak sakon-sakoneki lantzen ditu alderdi horiek, argi definiturik dago eta, zalantzarik gabe, lagungarri suertatu da autonomia hau izan dadin azken urteetan hazkunde tasetan eta langabeziaren ehunekoetan probetxu onenak atera dituenak.

Hori gauzatzeko, politika hori elkarrekin loturiko hiru programatan egituratuta dago: Berrikuntza teknologikoaren sustapena, inbertsioa eta enplegua sustatzea eta industriarako lurzorua sustatzea.

Berrikuntza teknologikoari buruzko politika 2000-2003 urtetarako plan teknologikoan jasota dago. Plan hori nahikoa eta sobera ezaguna denez, hemen haren lerro nagusiak baizik ez ditugu aipatuko: bi arlo estrategiko, hamabi lehentasuneko jarduketa-lerro eta 20.000 milioi pezeta-ko (120,20 milioi euro) aurrekontu orokorra ditu oinarri.

Plana ongi betetzen ari da. Xehetasunetan sartu gabe, ongi erakusten du hori lehen bi urteetan 10.301 milioi pezeta (61,91 milioi euro) aurreikusirik egon eta 12.469 milioi pezeta (74,94 milioi euro) gastatu izanak; horrek esan nahi du bultzada indartsua ematen ari zaiola berrikuntzari ekin-tza bide guztietan.

Halaber, proiektu tematikoen kapituluan Energia Berriztagarrien Zentroak eta Automozio Zentroa definitu dira. Haien betetzea aurrean hasi eta 2003. urtean zehar jarriko dira abian, planak hartzen duen epean. Gauza bera esan daiteke Agrobioteknologiako Institutuan aurreikusitako inbertsioei buruz, Aptapyme programari buruz (aurreikuspenak guztiz bete dira horretan), Ikerketa Mediko Aplikatuko Zentroari buruz, Lanbide Heziketako ikastetxeetan teknologia berriak sartzeari buruz eta Berrikuntzaren Parkearen lehenbiziko faseari buruz.

Beste maila batean, I+G eta garapen jarduketengatik kenkari fiskalak areagotu dira.

Inbertsioa eta enplegua sustatzearen arloan, 1996-2000 epean 171.000 milioi pezeta-ko (1.027,73 milioi euro) zenbatekoa egin da, aurreko epe berean egindakoa % 66 gaindituz.

Politika hori, zenbait pizgarri ematean (Europako Batasunak baimendutako mugen barruan) eta

Enplegu Planaren ekintzetan islatzen dena, indartu egin da, 2000ko apirilean Europako Batasuneko Batzordeak Nafarroa osoa —Iruña salbu— erregio xedeko laguntzak emateko eremu lagundu gisa behin betiko hartzerakoan, hain zuzen 2000 eta 2006 bitarteko, hartara legegintzaldi honetako helburuetako bat betez. Horri dagokionez, gogorarazi behar da 1999. urtera arte Europako Batasunak ez zuela baimenik ematen Tuterako eremurako, ez eta Tafalla, Lizarra eta Iruñeko zati baterako ere.

Bestalde, laguntzen araubide berri bat tramitatu da (2001-02-23ko NAO), Europako Batasunaren alde aurreko baimenarekin, graduazio irizpideak garatzeko, proiektu berrien alde, enpresa txiki eta ertainen alde eta Iruñeritik kanpoko proiektuen alde nabarmen egiten duena, hain zuzen ere lurralde orekari laguntzeko.

Industriarako lurzoruari dagokionez, jakina da haren sustapena eskualde eta udal mailako industrialdeen bitartez gauzatzen ari dela.

Eskualdeko industrialdeetan ahaleginak egin dira mota ezberdinetako enpresei lekua egiteko, enpresa handiei ere bai, nahiz eta energia, ur, saneamendu, komunikazio, sarbide eta abarretan azpiegitura eta zerbitzu bereziak behar izan.

Beharizan horiek kostu handia dute, eta kostu horiek eraman ahal izateko azalera handiko jarduketak egin behar dira (nahiz eta fasetan bete gero), lortzen diren lurzatiak prezio arazoizkoetan saldu ahal izateko, hartara ezartzen direneko aldearen sustapena eta garapena erraztuz, hori baita helburua.

Industrialde hauek, behar dituzten inbertsioen bolumenarengatik, jarduketa horiek berreskuratzeko iragan behar den denbora luzearengatik eta jarduketa horien zailtasunarengatik, udalek izan ohi dituzten baliabideen gaitetik daude, eta ez dira behar adina erakargarri izaten sustatzaile pribatuentzat; horrenbestez, Gobernuak eta NASUINSAK egiten dituzte.

Industrialde horiek, beraz, eskualdeko beharriazaneiei erantzuten diete, ez soilik ezartzen direneko herriaren beharriazaneiei.

Horien osagarri, udal industrialdeak sustatzen ari dira, toki jarduerari lekua emateko; industrialde horiek, gainera, hiriguneen kongestioa kentzeko balio izaten dute. Tokiko sareetatik hornitu daitezkeen zerbitzuak behar dituzte, azalera txikiagoak behar izaten dituzte, eta legez ezarritako pizgarrien bitartez sustatzen dira, legean ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

Aurrekontuko arrazoiengatik, leku guztietan eskualde mailako industrialdeak edukitzeko helburua ez zen zatika eta modu ahulean baizik lortu, eta defizit hori legegintzaldietan zehar arrastaka eraman behar izan da. Huts hori nabarmenago ikusten da espantsio urteetan.

Arazo horri behin betiko konponbidea emateko —ez baitzaio aurrekontuen bidetik konponbiderik aurkitu, eta hutsak betetzeko denbora behar delako—, 1997an Nasuinsa eratu zen. Urte hartatik hona lurzati garbien 2.425.000 m² (4 milioi m² gordin baino gehiago) urbanizatu ditu: sekula lortu gabeko kopurua da hori.

Bere dituen eginkizunak betez, 2001ean, lehen aldiz Nafarroan, Nasuinsak 2001-2005 urteetarako lurzoru plan bat egin du —hura betetzeko duen gaitasuna, gainera, jada demostratu du—. Hona haren ezaugarri aipagarrienak:

- Lurzati garbien 3.874.469 m² (gutxi gorabehera, 6 milioi m² gordin) urbanizatzea eta 19.600 milioi pezeta (117,8 millones de euros) inguruko inbertsioak egitea.

- Aurreikusitako industri lurzoruaren sorrerak 22.720 pertsonari emanen lioke lana; kopuru horrek Nafarroako industrian egun dagoenaren % 35 eta egungo langabeziaren 1,31 halako egiten du. (Estimazio horretarako enplegua/lurzoru okupatua ratioak erabili dira, zenbait azterlanetan agertzen direnak (100 m²/pertsona enplegatuko bakoitzeko, ohiko industrialdeetan, eta 200 m²/pertsona bakoitzeko saltoki handietan).

- Proiektaturiko lurzoruarekin, nahikoa eta gehiago betetzen dira hazkundeari eta enplegua sortzeari buruzko igurikapen onenak, bai orokorrean bai eskualdeka ere, eta lagun egiten du lurralde garapen orekatua lortzeko.

- Plana prestatzerakoan, ondoko irizpideak hartu dira kontuan, besteak beste: leku bakoitzeko industri enpleguaren ezaugarri geografikoak, langabezia eta gastuaren arazoizkotasuna.

- Eskualdeko poligonoa leku bakoitzean non jarri erabakitzeko, irizpide teknikoak erabiltzen dira, lehentasuna emanez, ahal dela, eskualdeko buruei, lurzoru erabilgarria izateaz beste eskakizun batzuei erantzun hobea eman diezaieketelakoan, hain zuzen ere enpresaburuek asko balartzen dituztenak: tailer osagarriak, mantentze zerbitzuak, aholkularitzak, ikastetxeak, osasun zentroak, josteta zentroak, etxebizitza eta abar.

Neurri honek lagun egingen du prozesuan zehar eskualdeko buru horiek erakarpen eta garapen zentro bilakatzeko behar adina masa kritikoa erdiets dezaten.

- Plana leku bakoitzaren bilakaeraren arabera berrikusi eta gaurkotzen da, beti erabiltzeko moduko lurzorua egon dadin eta arrazoi horrengatik aukerarik gal ez dadin bermatzeko.

Xede horrekin, industrialde bat sortzeko behar den epe luzea kontuan harturik, Nasuinsak leku bakoitzeko alternatibak aztertu ohi ditu, baldintza onenak eskaintzen dituzten kokaguneetarako proiektuak prestaturik eta tramitaturik edukitzeko; hartara, izan ere, modua izanen baita haiek exekutatzeko hasteko egun dagon eskualdeko industrialdean okupazio maila egoki batera iristen denean.

Bestalde, azalpen labur hauetan ohartarazi nahi da eskualdeko industrialdeak eduki nahi dituzten udal guztien eskariei erantzun nahi izanez gero, 60.000 milioi pezeta (360,61 milioi euro) inbertitu beharko lirakeela, eta horrek aukera emanen lukeela Nafarroan industriaren sektorean gaur egun dagoen okupazioari dagokion enplegu guztiari edo gehiagori lekua emateko; argi eta garbi dago hori utopikoa dela eta izugarri aldentzen dela aurreikuspen arrazoizko batetik.

Hartara, argi dago eremu bakoitzaren beharri-zanak nahikoa eta gehiago bete ondoren, egungo planak aurreikusten duen bezala, horrez gainera inbertitzen den guztia dirua xahutzea dela, ez duela enplegua sortzen laguntzen eta ez duela enpresa gehiagorik erakartzen. Segur aski, alternatiba hobeak daude hobeki asmatzeko eta eraginkortasunez jokatzeko, arrazoizkoa denaz haratago ez joateko industriarako lurzoruaren inbertsioetan.

Azalduko da ez da aplikatzen joan den industri politikaren sintesi bat baizik, iraganean bere emaitzak eman dituen eta lagungarri suertatu dena Nafarroa egoteko langabezi gutxien duten erkidegoen artean eta industriaren sektorean 1996-2000 aldian hazkunderik handiena izan duen erkidegoa izateko, % 5,58 batez besteko hazkunde-tasarekin.

Era berean, enpresek 2001etik 2004ra bitarte egiteko proiektatu dituzten inbertsioek, aurkeztutako eskarien arabera, 362.000 milioi pezeta egi-

ten dute. Horrek % 149 gaintzen du aurreko aldi berdinean (1997-2000) lortutako emaitza.

Azkenik, agente ezberdinen parte-hartzeari dagokionez, azpimarratu beharra dago indarra duen plan teknologikoaren prestaketan 90 pertsona parte hartu dutela 8 lantaldetan. Pertsona horiek enpresa, unibertsitate, ikerketa zentro, sindikatu, unibertsitatez besteko heziketa zentro eta abarretakoak dira; gainera, mahai sektorialetan 117 enpresak hartu dute parte. Horri guztiari enpresei eginiko 201 inkesta eta 30 azterketa gehitu behar zaizkio.

Gauza bera azpimarratu behar da enplegu planari buruz, enpresetako eta ordezkari handiena duten sindikatu etako agenteekin itundutakoa, alegia, Unión General de Trabajadores eta Langileen Komisioak sindikatu etakoekin.

Laugarren eta bosgarren erantzuna

Informazio publikorako epean, 11 udalen (haien artean Urdiaingo Udala) eta Sakanako Mankomunitatearen alegazioak aurkeztu dira, besteak beste, proiektua geldiarazteko eta Sakanako antolamendu eta garapen eredia errespetatutako duen beste batekin ordeztzeko.

Beste alegazio batzuek aldaketa garrantzitsuak planteatzen dituzte, hain zuzen ere jarduketa nabarmen garestitu eta industrialdearen sustapenean eragin handia izan dezaketenak, hain zuzen ere sustapena izaki lortu nahi den helburu nagusia.

Gainerako alegazioek zerikusi zuzena dute lurren prezioarekin.

Aurrekoa ikusirik, proiektuaren aldaketak benetan noraino iristen diren aztertzen ari da, bai alde ekonomikotik eta bai alde teknikotik, eta haien bideragarritasunean zenbaterainoko eragina izan dezaketen baloratu nahi da, betiere adostasunik handiena lortu nahian.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 13an

Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilaria: Nuria Iturrigaitia Ripoll

Galdera, Toki Administrazioiko Departamentuko Hiru Urteko Planaren barnean emandako presako dirulaguntzei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José M.^a Aranz Echarri jaunak Toki Administrazioiko Departamentuko Hiru Urteko Planaren barnean emandako presako dirulaguntzei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko apirilaren 29ko 41. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 16an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José M.^a Aranz Echarri jaunak galdera egin du Toki Administrazioiko Departamentuko hiru urteko planaren barnean emandako presako dirulaguntzei buruz. Hona hemen Toki Administrazioiko kontseilariaren erantzuna.

1. Zenbat eskaera aurkeztu zen 2001. urtean eta 2002. urtean, gaur arte, presa edo larrialdiko irizpidearekin?

LARRIALDI AITORTUKO IRIZPIDEAREN ARABERA OBRAK KONTRATATZEKO ESKARIAK 2001-2003 URTEETARAKO HIRU URTEETARAKO AZPIEGITURA PLANEAN

| ENTITATEA | OBRA | INBERTSIOA (EUROAK) |
|----------------------|---|------------------------|
| UHARTE-ARAKIL | Udaletxea | 197.492,58 |
| NOAIN (ELORTZIBAR) * | Oritzeko sarbidea zolaberritzea | 149.130,06 |
| ARAKIL | Urritzolako sareak | 99.195,82 |
| ARAKIL | Urritzolan zoladura jartzea | 149.487,44 |
| ALLO | Udaletxeko teilatua | 11.031,30 |
| LUZAIDE | Barberenbordako bidea | 31.551,60 |
| IBARGOITI | Idotzinen presio handiko ur hornidura | 108.182,18 |
| URRITZOLA-GALAIN | Ura erregulatzeko biltegia | 90.151,82 |
| NOAIN (ELORTZIBAR) * | Aireportuko errepide zaharra zolaberritzea | 174.070,26 |
| ZABALTZETA | Goi presioko uraren hornidura: | 15.025,30 |
| PETILLA DE ARAGON | La Paz kaleko horma berreraikitzea | 37.319,62 |
| CORELLA | Zehar kaleko euri-urak, zolaberritzea eta argiteria (2. fasea) | 156.817,40 |
| MONCAYOKO UR MANK. | Corellako zeharkaleko hornidura eta saneamendua (2. fasea) | 114.140,11 |
| INTZA | Usabar bideko eustorma | 11.821,91 |
| OLLOGOIEN | Kale bateko sareak eta zola jartzea | 28.415,85 |
| LESAKA | Argiteria publikoa (1. fasea) | 108.591,83 |
| LESAKA | Nabazko bidean zola jartzea | 86.441,64 |
| ERROIBAR | Zaharrentzako egoitzaren sarbidea | 97.687,29 |
| ROMANZADO | Udaletxean obrak egitea | 88.961,81 |
| VILLAFRANCA | Ura tratatzeko planta handitzea | 176.328,44 |
| USTAIZE | Ura erregulatzeko biltegia | 108.182,18 |
| AURITZ | Isurketa urak bideratzea | 23.493,56 |
| ESKA-ZARAITZU MANK. | Ontzietarako edukiontziak | — |
| ARBEITZA | Kontzejuaren etxea | 128.991,14 |
| ARRADA | Pinar, Ekialdeko Saihesbidea eta La Esperanza kaleetan zola jartzea | 140.103,45 |
| ZANGOZAKO ESK. MANK. | Morionesen presio handiko ur hornidura | — |

| ENTITATEA | OBRA | INBERTSIOA (EUROAK) |
|--------------------|---|------------------------|
| ARITZ | Zola jartzea (2. fasea) | 65.720,67 |
| BERA | Udaletxeko obrak | 54.812,30 |
| GIRGILLANO | Bideratzeak eta ezpondak | 23.968,96 |
| IGANTZI | Hornidurako eta saneamenduko sareak | 605.002,82 |
| TABAR | Kontzejuaren etxea egokitzea | 78.281,83 |
| IRUÑERRIKO MANK. | Arizko sareak berritzea | 103.054,49 |
| ZILBETI | Abeltzaintzako poligonoan obrak | 75.352,26 |
| ZILBETI | Udaletxea | 57.381,61 |
| GOIZUETA | Udaletxea | 164.024,65 |
| SAN ADRIÁN | Hornidurako eta saneamenduko sareak, Amistad kalea | 61.621,41 |
| SAN ADRIÁN | Amistad kalean zola jartzea | 66.605,86 |
| SAN ADRIÁN | Hornidurako eta saneamenduko sareak, Santa Gema kalea | 246.419,45 |
| SAN ADRIÁN | Santa Gema kalean zola jartzea | 260.319,72 |
| IRUÑERRIKO MANK. | Merced, Xabier Jeitsiera eta Tejeria kaleetako sareak | 677.460,66 |
| SAN VICENTE | Goi presioan ura hornitzea | 18.030,36 |
| ESLABA | Horma berreraikitzea | 23.769,78 |
| DEIERRI | Ziritza-Deierriko argiteria | 25.957,71 |
| ZULUETA | Urbanizazioa eta euri-urak | — |
| ERROIBAR | Zilbetiko presio handiko ur hornidura | 3.005,06 |
| ZULUETA | Kontzejuaren egoitza | 83.618,81 |
| ERROIBAR | Erroko eta Olondrizko presio handiko ur hornidura | 84.141,69 |
| ARTZIBAR-HIRIBERRI | Goi presioan ura hornitzea | 86.545,74 |
| METAUTEN | Udaletxean obrak egitea | 64.149,89 |
| ARRAITZ-ORKIN | Kontzejuaren etxea egokitzea | 130.768,21 |
| GALIPENTZU | Igerilekuetako kalean eta Kale Berrian zola jartzea | 84.494,98 |
| GALIPENTZU | Hilerriko bidea | 16.876,42 |
| BAZTAN | Beartzun eta Iurretako bideak | 122.262,32 |
| BAZTAN | Baserrietarako bideak (euri jasengatiko kalteak) | 18.398,93 |
| ARIBE | Kaleetako zola jartzea (2. fasea) | 99.861,21 |
| BASABURUA | Arrarasko Etxeaundia bordara elektrizitatea eramatea | 8.829,87 |
| ORBAITZETA | Kaleetako zola jartzea (2. fasea) | 285.402,98 |
| BASABURUA | Arrarasko Mara bordarako ur hornidura | 9.135,51 |
| ABLITAS | Ureztatzeko erretena, San Fermín kalea | 58.465,20 |
| AURITZ | Arrobi etxeko isurketak bideratzea | 23.492,64 |
| ZUÑIGA | Zola jartzea eta sareak (2. fasea) | 122.871,32 |
| IGANTZI | Goi presioko ur hornidura | 288.485,81 |
| SARTZE | Kaleetako zola jartzea (2. fasea) | 104.125,79 |
| NUIN | Kontzejuaren etxea konpontzea | 31.328,82 |
| EIAURRIETA | Beitiko kaleko horma berreraikitzea | 27.065,08 |
| GANUZA | Transformazio zentroa lekuz aldatzea | — |
| ARMAÑANZAS | Zabortegia ixtea | 5.764,57 |
| UZTARROZE | Hilerriko bidea | 30.047,83 |
| CABREDO | Saneamendu adarra eta kalea zabaltzea | 31.223,25 |
| IZAGAONDOA | Goi tentsioko bideratzea, Erretan eta Indurainen | 40.700,00 |
| ERROIBAR | 150 m ³ -ko biltegia, Mezkitzen | 104.000,00 |
| ARITZU | Ur biltegia, 110 m ³ | 90.200,00 |
| EULATE | Zeharkalea argizatzea | 65.258,06 |
| ARIA | Abelbidea hobetzeko lanak (2. fasea) | 122.578,61 |
| MURIETA | Geltokiko kalean zola jartzea | 73.569,89 |

| ENTITATEA | OBRA | INBERTSIOA (EUROAK) |
|--------------------------------|--|------------------------|
| BASABURUA | Igoarako ur-biderapena berritzea | 114.192,30 |
| LIZARRA | Trenbideko zubia | 966.551,94 |
| IRUÑERRIKO MANK. | Imarkoango zeharkaleko sareak | 52.221,35 |
| NOAIN (ELORTZIBAR) * | Imarkoango zeharkaleko zola jartzea | 92.125,35 |
| NAZAR | Kale Nagusiko eta La Fuente kaleko zenbait tartetan zola jartzea | 37.885,01 |
| IZURDIAGA | Herriko sarbideetan zola jartzea | 14.875,05 |
| MENDIGORRIA | Kiroldegiko goi tentsioko linea lekuz aldatzea | 18.023,64 |
| KASEDA | Ur biltegia konpontzea | 103.443,88 |
| ARANTZA | Azkilarrea eta Eguzkialdea auzoetako bideak | 108.182,18 |
| LARRAGA | Beheko solairuan ormigoizko zolarria jartzea | 2.828,57 |
| BUÑUEL | Argiteria publikoa (2. fasea) | 78.442,59 |
| SANTAKARA | San Pedroko aldapa | — |
| MARTZILLA | Deskaltzifikaziorako planta | 102.172,06 |
| ZANGOZAKO ESK. MANK. | Kamioiak aparkatzeko nabea | 180.000,00 |
| VILLAFRANCA | Tutera kaleko zola jartzea | 154.505,21 |
| VILLAFRANCA | Saneamendurako eta euri-uren sarea, Tutera kalea | 73.088,16 |
| MARAÑON | Cementerio kalean zola jartzea | 27.659,99 |
| ROMANZADO | Usun-Domeño eta Arbontzeko hornidura | 360.000,00 |
| LEITZA | Uren horniduraren hartune berria | 15.000,00 |
| ZUGARRAMURDI | Palazioa, Molino, Sutegia bideak eta beste | 75.505,15 |
| AGOITZ | Udaletxeko teilatua | 15.716,37 |
| ESKA-ZARAITZU MANK. | Paper eta kartoi edukiontzia | 4.190,04 |
| OLORITZ | Kale Nagusian zola jartzea | 100.031,65 |
| ABAURREGAINA ETA ABAURREPEA | Ur biltegiak hobetzea | 30.000,00 |
| MIRANDA-ARGA | Argiteria publikoa erreformatzea | 160.235,49 |
| IZKO | La Cruz iturburuarenn hartunea eta bulkada | 71.200,00 |
| CADREITA | Hilerria zabaltzea | 72.121,45 |
| BEINTZA-LABAIEN | Ur biltegia iragazgaiztea | 6.500,00 |
| ROMANZADO | Orradreko ur hornidura | 65.882,26 |
| BIDANKOZE | Goi presioan ura hornitzea | 212.000,00 |
| SARTAGUDA | Cerradilla kalea urbanizatzea | 203.565,26 |
| OLLETA | Hornidurako eta saneamenduko sareak | 268.298,75 |
| MAIRAGAKO MANK. | Olorizko hornidurako eta saneamenduko sareak | 45.329,80 |
| OITZ | Hirigunerako sarbideak | 73.350,71 |
| ARAMENDIA | Kaleetako zola jartzea (2. fasea) | 82.981,74 |
| LARRAONA | Hornidurako eta saneamenduko sareak | 134.456,67 |
| GABARDERAL | Navarra Plazaren argiteria | 35.700,53 |
| ARAMENDIA | Erregulazio biltegia, 120 m3 | 106.000,00 |
| ARESO | Gorriti/Auzolagako bideko urak drainatzea | 5.979,14 |
| MENDILIBARRI | Kontzejuaren etxea egokitzea | 55.154,83 |
| ALDATZ | Herri argiteria | 66.025,79 |
| ARRADA | Pinar, Ekialdeko Saihesbidea eta La Esperanza kaleetako hornidura sareak | 72.116,63 |
| BASABURUA | Aizarotz-Itsasoko goi presioko ur hornidura | 280.000,00 |
| BERASAIN | Goi presioko ur hornidura berritzea | — |
| GERENDIEN | Kontzejuaren etxea berritzea | 106.751,29 |
| LABOPLACION-MEANO | Meanoko goiko kaleko horma | 44.876,40 |
| LABOPLACION-MEANO | Biltegirako kalea, Lapoblaciónen | 66.093,87 |

| ENTITATEA | OBRA | INBERTSIOA (EUROAK) |
|------------------|---|------------------------|
| IRUÑERRIKO MANK. | Ilundaingo goi presio ur hornidura | 320.638,41 |
| LIZARRA | Irantzuko Monasterioa kalea urbanizatzea | 175.145,58 |
| BARASOAIN | Kontsultategi medikoaren ingurua urbanizatzea | 104.160,30 |
| BAZTAN | Iruritako Luis Gaztelu kaleko sareak eta zerbitzuak | _____ |
| BAZTAN | Arraiozko ur hornidura | _____ |
| FALTZES | La Mota kaleko argiteria | 93.494,36 |
| ALKOTZ | Zeharkalea urbanizatzea | 508.882,47 |

Iruñean, 2002ko apirilaren 22an

2. Zenbati eman zaio erantzuna eta zein zenbatakorekin?

Ondoren 2002-2003 Hiru Urteko Planaren bitartez presako irizpidearen arabera erantzun diren obra eskariei buruzko taula, parlamentu-galdera honen bigarren atalean itaundutakoari erantzuteko.

2001-2003 HIRU URTEKO PLANEAN LARRIALDI AITORTUKO IRIZPIDEAREN ARABERA
OBRAK KONTRATATZEKO ESKARIAK

| ENTITATEA | OBRA | INBERTSIOA (EUROAK) |
|--------------------|---|------------------------|
| IBARGOITI | Idotzingo hornidurarako hoditeria | 108.040,47 |
| VILLAFRANCA | Ura tratatzeko planta handitzea | 184.274,28 |
| ERROIBAR | Erro eta Orondrizko hornidurak | 84.141,69 |
| IGANTZI | Goi presioko ur hornidura | 288.485,81 |
| USTAIZE | 100 m ³ -ko ur biltegia eta obra osagarriak | 108.182,18 |
| ARMAÑANZAS | Zabortegia itxi eta oneratzea | 5.763,71 |
| MONCAYOKO UR MAN. | Corellako zeharkaleko hornidura eta saneamendu sareak (2. fasea) | 114.136,57 |
| ARAKIL | Urritzolako hornidurako eta saneamenduko sareak | 99.195,82 |
| SAN ADRIÁN | Santa Gema kaleko hornidurako eta saneamenduko sareak (1. tartea) | 246.420,97 |
| IRUÑEKO M. | Imarkoango zeharkaleko hornidura eta saneamendu sareak | 52.221,35 |
| DEIERRI | Ziritza-Deierriko argiteria | 24.856,08 |
| NOAIN (ELORTZIBAR) | Aireportuko errepide zaharra | 162.844,75 |
| CORELLA | Zeharkalea urbanizatzea (2. fasea) | 156.817,40 |
| EIAURRIETA | Beitiko kaleko horma berreraikitzea | 26.871,96 |
| LIZARRA | Trenbideko zubia | 962.459,37 |
| NOAIN (ELORTZIBAR) | Imarkoango zeharkalea | 92.125,35 |
| ZILBETI | Udaletxea | 59.676,40 |
| UHARTE-ARAKIL | Udaletxea | 217.238,87 |
| METAUTEN | Udaletxean obrak egitea | 64.149,89 |
| NUIN | Kontzejuaren etxea konpontzea | 30.325,47 |
| BERA | Udaletxeko teilatua, aurrealdea eta balkoiak | 54.717,02 |
| AGOITZ | Udaletxea zaharberitzea | 15.716,37 |
| GALIPENTZU | Hilerriko bidea | 16.899,14 |
| UZTARROZE | Hilerriko bidea | 32.815,74 |

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 14an

Toki Administrazio kontseilaria: Rafael Gurrea Induráin

Galdera, etorkinek Nafarroako Enplegu Zerbitzuko prestakuntza-ikastaroetan parte hartu ahal izateari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Isabel Arboniés Bermejo andreak etorkinek Nafarroako Enplegu Zerbitzuko prestakuntza-ikastaroetan parte hartu ahal izateari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko maiatzaren 6ko 45. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 17an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Isabel Arboniés Bermejo andreak galdera egin du etorkinek Nafarroako Enplegu Zerbitzuko prestakuntza-ikastaroetan parte hartu ahal izateari buruz. Hona hemen Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilari Nuria Iturriagoitia Ripoll andreak erantzuna.

Abuztuaren leku 1319/1997 Errege Dekretuaren bidez, Estatuko administrazioak Nafarroako Foru Komunitateari eskualdatu zizkion Enpleguaren Institutu Nazionalak lanbiderako prestakuntzaren arloan betetzen zituen eginkizunak eta zerbitzuak.

Nafarroako Enplegu Zerbitzuak Laneratzeko prestakuntza plan nazionalaren esparruan (FIP

plana) kudeatzen dituen ikastaroak Estatuko araudiak erregulatzen ditu (631/1993 Errege Dekretua eta hura garatzen duten ministerioaren aginduak).

Azken lau urteetan, batera erabili dira INEMen ikastaroen arau zaharrak, ikasleei sartzeko eskakizun zehatz batzuk zekartzatenak, eta berriak, Laneratzeko prestakuntza programa nazional berriaren eskutik ezarritakoa. Bikoiztasun hori 2002ko urtarrilean desagertu zen.

Programazioaren xede diren ikastaroak INEMen ikastaroen katalogoan ageri direnak dira; horiek ezartzen dituzte, programetan edo lanbide gaitasunaren egiaztagirietan -errege dekretuaren mailarekin--, ikasleak sartzeko baldintzak, besteak beste, horietan sartzeko behar den gutxieneko ikasketa maila. Hori aldakorra da ikastaro motaren arabera,

Kasu bakoitzean behar den gutxieneko ikasketa titulazioaren jabe izatea egiaztatu beharra, lanik ez daukan eta lana eskatzen duten guztiek izanen dute, eta guztientzat berdina izanen da.

Bestalde, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak diruz laguntzen du etorkinentzako baizik ez den programa bat, eta horien ekintzen artean sartzeko baldintza akademikorik gabeko ikastaroak eskaintzen dira.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 16an

Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilaria Nuria Iturriagoitia Ripoll

Galdera, Orkoiengo TRW enpresari emandako dirulaguntzei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak Orkoiengo TRW enpresari emandako dirulaguntzei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko apirilaren 29ko 41. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 21ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilariaren erantzuna

Askotariko Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak galdera egin du Orkoiengo TRW enpresari emandako dirulaguntzei buruz. Hona hemen Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilari Nuria Iturriagagoitia Ripoll andrearen erantzuna.

1.1.Orkoiengo planta (LUCAS GIRLING, S.A. zena):

– PAD00174 esped. Industria zuzendari nagusiak 1985eko abuztuaren 6an emaniko ebazpenaren bidez, 115.383,10 euroko dirulaguntza eman eta ordaindu zen, inbertsioagatik, egiaztatutako 1.153.831,01 euroko inbertsio baten gainean.

– PAD00382 esped. Industria zuzendari nagusiak 1985eko abenduaren 30ean emaniko ebazpenaren bidez, 433.329,73 euroko dirulaguntza eman eta hiru epetan ordaindu zen inbertsioagatik, egiaztatutako 2.184.224,46 euroko inbertsio baten gainean.

– PAD00541 esped. Industria zuzendari nagusiak 1987ko azaroaren 16an emaniko ebazpenaren bidez, 641.760,73 euroko dirulaguntza eman eta ordaindu zen, inbertsioagatik, egiaztatutako 3.248.088,26 euroko inbertsio baten gainean. Enpleguaren arloan, 4.507,59 euroko dirulaguntza eman zen lanpostu finko bat sortzeagatik, eta 1989ko urtarrilaren 10eko ebazpenaren bidez ordaindu zen.

– PAD00956 esped. Industria zuzendari nagusiak 1991eko maiatzaren 20an emaniko ebazpenaren bidez, 1.015.776,63 euroko dirulaguntza

eman eta ordaindu zen, inbertsioagatik, egiaztatutako 5.084.696,49 euroko inbertsio baten gainean. Enpleguaren arloan, 150.253,03 euroko dirulaguntza eman zen 50 lanpostu finko sortzeagatik. Ebazpen horren beraren bidez 583.596,16 euroko zenbatekoa ordaindu zen eta dirulaguntzaren gainerakoa 1992ko maiatzaren 19ko ebazpenaren bidez.

– PAD001497 esped. Industria zuzendari nagusiak 1994ko otsailaren 22an emaniko ebazpenaren bidez, 27.344,02 euroko dirulaguntza eman zen, inbertsioagatik, egiaztatutako 911.467,27 euroko inbertsio baten gainean. Laguntza 1995eko urtarrilaren 31ko ebazpenaren bidez ordaindu zen.

– PAD01631 esped. Industria zuzendari nagusiak 1995eko azaroaren 28an emaniko ebazpenaren bidez, 74.838,03 euroko dirulaguntza eman eta ordaindu zen, inbertsioagatik, egiaztatutako 1.903.861,18 euroko inbertsio baten gainean.

– PAD01816 esped. Industria zuzendari nagusiak 1997ko abenduaren 19an emaniko ebazpenaren bidez, 308.619,72 euroko dirulaguntza eman eta ordaindu zen, inbertsioagatik, egiaztatutako 6.211.255,21 euroko inbertsio baten gainean.

– PAD02275 esped. Industria zuzendari nagusiak 1999ko irailaren 9an emaniko ebazpenaren bidez, 383.917,14 euroko dirulaguntza eman eta ordaindu zen, inbertsioagatik, egiaztatutako 4.265.746,02 euroko inbertsio baten gainean.

– PAD02996 esped. Industria zuzendari nagusiak 2001eko martxoaren 6an emaniko ebazpenaren bidez, 162.073,50 euroko dirulaguntza eman eta ordaindu zen, inbertsioagatik, egiaztatutako 3.241.469,92 euroko inbertsio baten gainean.

– PAD03510 esped. Industria zuzendari nagusiak 2001eko maiatzaren 22an emaniko ebazpenaren bidez, 340.773,86 euroko dirulaguntza eman zen behin-behinekoz, inbertsioagatik, proiektaturiko 4.868.198,04 euroko inbertsio baten gainean. Horren ordainketa 2003ko ekitaldian egi-tea finkatu zen.

PDI09017 esped. Gobernuak 1991eko azaroaren 12an hartutako Erabakiaren bidez inbertsioagatik kenkari berezia eman zen; 1991eko ekitaldian 142.899,82 euroko aplikazioa izan zuen eta 427.402,78 eurokoa 1992ko ekitaldian.

1.2-Landabengo planta:

– PAD01303 esped. Industria zuzendari nagusiak 1994ko urtarrilaren 20an emaniko ebazpenaren bidez, 1.700.229,32 euroko dirulaguntza eman zen, inbertsioagatik, egiaztatutako 8.5091.146,60 euroko inbertsio baten gainean. Ebazpen horren beraren bidez 663.911,68 euroko zenbatekoa ordaindu zen eta dirulaguntzaren gainerakoa, hau da, 1.036.317,64 euro, 1994ko azaroaren 8ko ebazpenaren bidez.

– PAD01647 esped. Industria zuzendari nagusiak 1995eko uztailaren 18an emaniko ebazpenaren bidez, 1.374.695,42 euroko dirulaguntza eman eta ordaindu zen, inbertsioagatik, egiaztatutako 6.873.477,10 euroko inbertsio baten gainean.

– PAD02066 esped. Industria zuzendari nagusiak 1997ko abuztuaren 5ean emaniko ebazpenaren bidez, 2.169.796,24 euroko dirulaguntza eman eta ordaindu zen, inbertsioagatik, egiaztatutako 10.848.981,23 euroko inbertsio baten gainean. Ebazpen horren beraren bidez 1.652.625,22 euroko zenbatekoa ordaindu zen eta dirulaguntzaren gainerakoa, hau da, 517.171,02 euro, 1998ko otsailaren 3ko ebazpenaren bidez.

– PAD02586 esped. Industria zuzendari nagusiak 2000ko otsailaren 8an emaniko ebazpenaren bidez, 699.803,67 euroko dirulaguntza eman eta ordaindu zen, inbertsioagatik, egiaztatutako 5.831.697,23 euroko inbertsio baten gainean, eta 132.222,66 eurokoa, berriz, 44 lanpostu mugagabe sortzeagatik.

– PAD03044 esped. Industria zuzendari nagusiak 2001eko maiatzaren 8an emaniko ebazpenaren bidez, 1.576.488,11 euroko dirulaguntza eman zen behin-behinekoz, inbertsioagatik, proiektaturiko 12.126.831,59 euroko inbertsio baten gainean. Horren ordainketa 2004ko ekitaldian egitea finkatu zen.

– PAD03839 esped. Industria zuzendari nagusiak 2002ko apirilaren 9an emaniko Ebazpenaren bidez, enpresak 5.723.002,04 euroko inbertsio proiektu baterako eskaturiko laguntzei uko egin zaie, Industria, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilariak azaroaren 20ko 361/2000 Foru Dekretuan eta otsailaren 1eko 12/2001 Foru Aginduan xedatutakoaz baliatuz, agindu horietan ezartzen baita Iruñeko udalerrian kokaturiko enpresa handiek instalazioak handitzeko egiten dituzten proiektuek ez dutela dirulaguntzarik jasoko 2000ko urtarrilaren 1en aurrera hasiak badira.

2) Inbertsiorako eta enplegurako laguntzen onuradun diren enpresei, horiek arautzen dituen araudiarekin bat eskatzen zaie dirulaguntzaren xede diren ondasunek enpresaren jabetzakoak izatea bost urtez gutxienez edo erabilgarriak diren

bitartean, bestela, erabiliak izateko hirugarrenei eskualdatu, errentan eman edo laga gabe.

3) Tramitaturiko espediente guztietan egiaztatu da enpresak bete dituela aipatutako baldintza horiek.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 8an

Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilaria Nuria Iturrigaitia Ripoll

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna

Parlamentuko Askotariko Taldeko foru parlamentari Milagros Rubio andreak galdera egin du Orkoingo TRW enpresari emandako dirulaguntzei buruz eta idatzizko erantzuna eskatu du. Hona hemen Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna.

1. Artxibo ekonomikoak aztertu ondoren esan dezakegu TRW enpresak Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren dirulaguntza hauek jaso dituela:

– 1997 urtea: Ingurumen zuzendari nagusiak 1997ko abenduaren 31n emaniko bi ebazpenen bidez honako zenbateko hauek ordaindu ziren: 17.176,14 euro (2.857.870 pezeta), ingurumenaren arloko kudeaketa sistema ezartzeko dirulaguntza gisa, eta 25.500,92 euro (4.242.997 pezeta) taladrina eta txirlora biltzeko parkearen erreforma egiteko dirulaguntza gisa.

– 1999 urtea: Ingurumen zuzendari nagusiak 1999ko urtarrilaren 28an emaniko ebazpenaren bidez 4.034,57 euro (671.296 pezeta) ordaindu ziren, ingurumenaren arloko kudeaketa sistema ezartzeko dirulaguntza gisa.

– 2000 urtea: Ingurumen zuzendari nagusiak 1999ko urtarrilaren 20an emaniko ebazpenaren bidez 6.795,27 euro (1.133.860 pezeta) ordaindu ziren, ingurumenaren arloko kudeaketa sistema ezartzeko dirulaguntza gisa.

2. Aipatutako dirulaguntza guztiak ekainaren 23ko 168/1997 Foru Dekretuaren babesean eman dira. Dekretu horren bidez, Nafarroan industriak eragindako kutsaduraren gaian prebentzio lanak egin, bideratu eta kontrolatzeko neurriak hartzeko inbertsioetarako dirulaguntzak arautu ziren eta beraz, erregelamendu horretan ezarritako baldintzak dira laguntzaren onuradunak bete beharrekoak.

3. 168/1997 Foru Dekretuaren 6. artikuluan ezarritakoarekin bat, laguntzak a posteriori, hau da, diruz lagundutako inbertsioak eta gastuak justifikaturik ordaintzen dira.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 14an

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria Javier Marcotegui Ros.

Galdera, Culturas Millenium Fundazioa udako ikastaroak antolatzeko hautatu izanari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak Culturas Millenium Fundazioa udako ikastaroak antolatzeko hautatu izanari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko apirilaren 29ko 41. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

EA/PNV Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak galdera egin du Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako zuzendari nagusiak Culturas Millenium fundazioarekiko lankidetzaren hitzarmenaren inguruan maiatzaren 31n emaniko 121/2001 ebazpenari buruz. Hona hemen Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna.

Udako ikastaroak antolatzen dituzten entitateekin batera, Hezkuntza eta Kultura Departamentuari egokia iruditu zaio unibertsitateen eskaintza

osatzea Nafar Ateneoak eta Culturas Millenium fundazioak gauzatutako beste jarduera batzuekin, azken kasu honetan antzinako historiarekin zerikusia duten jarduerak antolatzeko.

Fundazioen Erregistrotik hartutako datuen arabera -jendearentzat irekia baita erregistro hori-, Culturas Millenium fundazioa bertan inskribatu zen 2001eko urtarrilaren 29an, eta Iruñeko Ezkizoroz kaleko 30ean -atzealdea- dauka helbidea. Patronatuko Juntaren karguak honako hauen esku daude:

Juntako burua: Luis Landa Busto jauna; buruordea: M^a Dolores Joaquina Teruelo Teruelo; idazkaria: Ángel Joaquín Quintana Bardají jauna; diruzaina: Ana Isabel González Carrillo andrea; kideak: M.^a Luz Mangado Alonso andrea, Julio López López jauna, eta Enrique Iriso Lerga jauna.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 20an.

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria: Jesús Laguna Peña

Galdera, aurten eskainiko diren udako ikastaroei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak aurten eskainiko diren udako ikastaroei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko apirilaren 29ko 41. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

EA/PNV Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak galdera egin du aurten eskainiko diren udako ikastaroei buruz. Hona hemen Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna.

Joan zen maiatzaren 8an, Nafarroako Gobernuak Hezkuntza eta Kultura Departamentuak, Iruñeko Udalak eta Caja Navarra fundazioak 2002. urterako babestu dituzten udako ikastaroen aurkezpen ofiziala egin zen. Aurten, ikastaro horiek Lizarra, Tafalla eta Tuterako udalen laguntza izan dute, baita Diario de Navarrarena ere.

Nafarroako Gobernuak, Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiaren aurrekontuen bitartez, Nafarroako Unibertsitateak, Nafar Ateneoak eta Culturas Millenium fundazioak proposaturiko jarduerak finantzatzen ditu. Gainerako jarduerak, Iruñeko eta Tuterako UHUNek antolatutakoak eta Nafarroako Unibertsitate Publikoak antolatutakoak, proiektu honen babesle diren bi erakundeek finantzatzen dituzte.

Bigarren edizio honetan Nafarroako Gobernuak finantzaturiko ikastaroak, eta haiek gauzatzeko tokiak, datak eta aurrekontuak hauexek dira:

Nafarroako Unibertsitate Publikoak antolatutakoak:

– «Cambio de valores, cambio de ley en la educación secundaria», Iruñean, ekainaren 24tik 26ra.

– «Derechos fundamentales y su protección», Iruñean, uztailaren 1etik 3ra.

– «Salud, Tecnología y Sociedad», uztailaren 16tik 18ra, Bertizen.

– «La delgadez física como atractivo en la adolescencia: prevención de la anorexia», uztailaren 16tik 18ra, Bertizen.

– «Estrategias para el desarrollo del conocimiento en la empresa», uztailaren 16tik 18ra, Bertizen.

– «La situación socioeconómica en Ibero-América tras la crisis de Argentina», uztailaren 22tik 24ra, Iruñean.

Nafarroako Unibertsitateak antolatutakoak:

– «Cómo dirigir los centros educativos eficazmente», irailaren 2tik 4ra, Iruñean. Aurrekontua 4.470 eurokoa da.

– «La enseñanza de las disciplinas históricas en la Enseñanza Secundaria y Bachillerato», abuztuaren 27tik 30era, Iruñean. Aurrekontua 8.355,80 eurokoa da.

– «Promoción y mecenazgo en el arte navarro», abuztuaren 26tik 29ra, Iruñean. Aurrekontua 9.015,18 eurokoa da.

– «Ambiente y calidad urbana», irailaren 5etik 7ra, Tafallan. Aurrekontua 3.910 eurokoa da.

– «Naturaleza y medio ambiente en prensa, radio y televisión», irailaren 9tik 11ra, Iruñean. Aurrekontua 5.700 eurokoa da.

– «Los retos de la investigación biomédica en el siglo», irailaren 2tik 6ra, Iruñean. Aurrekontua 12.000 eurokoa da.

– «Drogodependencias», irailaren 2tik 6ra, Iruñean.

Iruñeko UHUNek antolatutakoak:

– «Utilización de las nuevas tecnologías en la enseñanza de las Ciencias», irailaren 9tik 12ra, Iruñean.

– «Utilización de las nuevas tecnologías en la enseñanza de las Humanidades», irailaren 9tik 12ra, Iruñean.

Iruñeko UHUNek antolatutakoak:

– «El vino: espacios, aromas y tiempos», uztailaren 1etik 4ra, Tuteran.

– «Cuestiones actuales en la Gestión de PYMES», uztailaren 2tik 4ra, Tuteran.

– «Rehabilitación en esquizofrenia», uztailaren 1etik 2ra, Tuteran.

Nafar Ateneoak antolatutakoak:

– «La guerra civil española en la novela y en el cine», irailaren 9tik 15era, Iruñean. Aurrekontua 13.222 eurokoa da.

Culturas Millenium fundazioak antolatutak:

– «Las grandes reinas de Egipto», irailaren 3tik 5era, Iruñean. Aurrekontua 8.955 eurokoa da.

– «El Oriente Milenario: India, China y Japón: El Humanismo de San Francisco Javier», irailaren 18tik 20ra, Iruñean. Aurrekontua 8.955 eurokoa da.

– «La cultura faraónica del Antiguo Egipto», abuztuaren 27tik 29ra, Iruñean. Aurrekontua 8.955 eurokoa da.

– Teatro-Danza «Kathaka`li: La Epopeya de Mahabharata», irailaren 28an, Iruñeko Gayarre antzokian. Aurrekontua 6.010 eurokoa da.

Erakundeek programaturiko jardueren kostuak, osotara, 360.607,26 euro egiten du; horietatik Nafarroako Gobernuak, Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiaren aurrekontuen bitartez, 120.202,42 euro ordaintzen ditu, zabalkundearen kanpaina finantzatzeko 30.050,19 euroak barne.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 20an.

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria: Jesús Laguna Peña.

Galdera, superabitaren gaur egungo zenbatekoari eta zenbait proiektutan hura kontrapartida gisa erabiltzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak superabitaren gaur egungo zenbatekoari eta zenbait proiektutan hura kontrapartida gisa erabiltzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko maiatzaren 6ko 45. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak galdera egin du Nafarroan izaniko superabitari eta zenbait proiektutan hura kontrapartida gisa erabiltzeari buruz. Hona hemen Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren erantzuna:

2001eko ekitaldiaren ondotik superabitak duen zenbatekoa ez da behin betikoa, egun egiten ari direlako itxiera eragiketak. Nolanahi ere, datu hori Nafarroako kontu orokorreari buruzko foru legearen proiektuan sartuko da; proiektua Parlamentura igorriko da aurtengo irailaren 15a baino lehen,

Nafarroako ogasun publikoari buruzko 8/1988 Foru Legea betez.

Aurreko ekitaldietako superabita Nafarroako ogasun publikoaren betebeharreari erantzuteko erabili da azken urtean, halaxe agintzen baitu Nafarroako ogasun publikoari buruzko 8/1988 Foru Legeak, ez baitzen lege ezarri inongo xede zehatzi atxikitzea.

Halere, kontseilari honek edo Nafarroako Gobernuak aurrekontuari aurreko ekitaldietan metaturiko superabitean jatorria duten funtsak, balantzean jasotakoak, gehitu zaizkion bakoitzean, Parlamentuari eman zaio horren berri.

Nafarroako Gobernuak baliabide horiek Foru Parlamentuak alde aurretik onetsi gabe erabiltzen ditu, Nafarroako ogasun publikoari buruzko 8/1988 Foru Legean ezarritakoa oinarrituz, zehazki 45. artikuluan (2. idatz-zatian arautzen du gehitu daitezkeen kredituen finantziazioa) eta 52.ean (2. idatz-zatian arautzen du kredituak eranstearen finantziazioa).

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta hurrengoak betetzeko.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 21ean

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria, Francisco Iribarren Fentanes.

Galdera, Nafarroak Madrilen duen ordezkariari Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen administrazioiko goi karguen bateraezintasunei buruzko Foru Legea aplikatzen ote zaion itauntzen duena

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, ondoko galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da: Galdera, Nafarroak Madrilen duen ordezkariari Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen administrazioiko goi karguen bateraezintasunei buruzko Foru Legea aplikatzen ote zaion itauntzen duena. Galdera hori 2002ko maiatzaren 6ko 45. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak galdera egin du Nafarroak Madrilen duen ordezkariari Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen administrazioiko goi karguen bateraezintasunei buruzko

Foru Legea aplikatzen ote zaion jakiteko. Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariak ondoko txostena bidaltzen du erantzun gisa. Txostena Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiak egina da (goi karguen erregistroaren organo kudeatzaillea), zeinak erabateko independentzia baitu kudeaketa hori gauzatzeko, Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen administrazioiko goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legearen 8.1 artikuluan xedatutakoarekin bat.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 21ean.

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria: Rafael Gurrea Induráin

(Oharra: Aipatu eranskina foru parlamentarien eskura dago Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan.)

G Saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko administrari izateko lanpostu huts bat, Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren bulegoan ariko dena, lekualdatze lehiaketaren bitartez betetzekoa

Onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda

Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko administrari izateko lanpostu huts bat, Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren bulegoan ariko dena, lekualdatze lehiaketaren bitartez betetzeko deialdiaren behin-behineko zerrendari erreklamazioak aurkezteko epea bukatu eta horiek ebatzita, deialdiko 4. oinarrian ezarritakoarekin bat (deialdia 2003ko martxoaren 3ko 27. NAOn eman zen argitarata),

ERABAKI DUT:

1. Izangai onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda onestea. Hona:

Onartuak:

Arana Ripa, África
Berango García, Yolanda
Gamboa Zabalo, M^a Jesús

Guillorme Urmeneta, Alberto
Horcada Baztán, Rosa
Jaurrieta Elcano, Teodoro
Lainez Gil, M^a del Mar
Moreno Santiago, M^a Lourdes

Baztertuak:

Idoate Zazpe, Pedro Javier (*)

(*) Comptos Ganberako edo Foru Komunitateko administrazioko funtzionarioa dela kreditatu ez duelako. (Deialdiko 2.1 oinarria).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzeko agindua ematea.

Iruñean, 2003ko apirilaren 11n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

| HARPIDETZAREN PREZIOA | IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA |
|--|--|
| ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA | NAFARROAKO PARLAMENTUA |
| Urte bat 40,27 euro | «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» |
| Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa 1,02 » | Navas de Tolosa, 1 |
| Bilkura Egunkariaren aleko prezioa 1,20 » | 31002 IRUÑA |